

BAIMENAK EMATEKO, ETA INGURUMENA BABESTEAREN ETA JARDUERA KALTEGABEEN ALORREAN KONTROLEKO ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

OINARRIA

1. artikulua. Ordenantza hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren babesean eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zergapeko egintza da Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen ondorioz jarduera sailkatuaren udal lizentzia behar duten instalazio eta jardueren ezarpenari, ustiapenari, lekuz aldatzeari, nabarmen aldatzeari, berriz irekitzeari eta abian jartzeari dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiiboak ematea, baita, jarduera kaltegabeen kasuan, udal lizentzia behar dutenei dagozkienak ere; orobat, lizentziaren ordeztu aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpena aurkeztu behar denetan egiten diren kontrol jarduerak administratiiboak, eta zehatz-mehatz:

a) Jarduera lizentzia.

b) Irekitzeko lizentzia.

c) Irekitzeko lizentziaren aldaketa.

d) Instalazio eta lokalak berriz irekitzeko baimena.

f) Jarduera hasitakoan edo irekitakoan kontrolak egitea, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordeztu erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar bada.

SORTZAPENA

3. artikulua. Tasa lizentzia eskatzen denean sortuko da edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztzen denean.

Udalak lizentzia eman ala ez erabaki arte, interesdunak zilegi izanen du espresuki atzera egitea eta kasu horretan, tasa izanen da lizentzia eman balitz ordaindu beharko zatekeenaren %20. Lizentzia ematen ez bada, zerga zenbateko berera murriztuko da.

Orobat, %20ra murriztuko da, baldin jarduera hasteari uko egiten zaiola komunikatzen bada jardueraren kontrola bukatzen duen udal ebazpena eman aurretik.

SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen duten entitateek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu edo berraztertzen edo eskualdatzen bada, edo haien izenean aurkeztzen bada aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpena.

TARIFAK

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean jaso dira aplikatuko diren tarifak.

SALBUESPENAK

6. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespen edo hobaririk emanen.

KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua. Jarduera baterako baimena erdietsi nahi dutenek Herriko Etxean aurkeztuko dute behar den lizentzia eskabidea, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpena, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta haien kokapena zehazten dituztela, aplikagarria den eta indarra duen araudian eskatutako dokumentazioarekin batera.

8. artikulua. Udalak ordenantza honetan ezarritako tasak likidatuko ditu, eskatutako lizentzia eman edo ukatzen duenean.

Lizentziaren beharkizunaren ordeztu aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpena egin behar bada, tasaren likidazioa egingen da horiek aurkeztu aurretik eta ordainagiria aurkeztuko da aurretiazko komunikazioarekin edo erantzukizuneko aitortpenarekin batera.

9. artikulua. Lizentzia iraugiz gero, jardueran aritu nahi duten interesdunek lizentzia berria eskatu beharko dute edo beste erantzukizuneko aitortpen edo aurretiazko komunikazio bat aurkeztu, eta dagokion tasa ordaindu.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. artikulua. Iruzurtzat hartuko dira arau-hauste berezi hauek:

- a) Lokalak irekitzea, behar den lizentzia erdietsi gabe.
- b) Zerga-oinarria zehazteko behar diren datuak gezurrezkoak izatea.

Bertzelako arau-hausteetarako ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio, edo bertzenaz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta harekin bat datozen arauak.

11. artikulua. Arau-hausteen ondorioz sortzen diren zehapenen gainerako kontuetarako, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio, baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta horrekin bat datozen gainerako arau orori ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten da irekitzeko lizentzien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala (1997ko 157. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, abenduaren 31n).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.—Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatua aplikatuko da.

Bigarrena.—Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko 2016ko urtarrilaren 1ean, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.